

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Ogasunak 2016ko PFEZ aitorpenerako simulagailua aktibatu du

2017ko udaberrian aurkeztuko den aitorpenari buruzko orientazioa emateko tresna da

Astelehena, 2016.eko abenduak 5

Nafarroako Zerga Ogasunak 2016ko diru sarrerei dagokien pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) aitorpenerako [simulagailu](#) ofiziala aktibatu du dagoeneko. 2017ko udaberrian ofizialki aurkeztuko den aitorpenaren emaitzari buruz orientatzeko tresna bat da, eta erabaki fiskalak hartzea errazten du aurtengo urtea amaitu aurretik, bereziki kenkariez baliatzen diren zergadunentzat, pentsio-planei edo etxebizitza-planei dagozkienak, esate baterako.

2015ean, abenduan aplikazioak 13.000 sarrera baino gehiago izan zituen bere errenta-aitorpenaren kalkulu bat lortzeko eta beraien ekarpenak urte fiskala amaitu aurretik egokitzeko.

Simulagailu honen erabilera anonimoa da, eta informazio-izaera baino ez du. Aplikazioa eskuratzeko ez da inolako baimenik behar. 2016ko diru-sarrerei buruzko datuak sartu ondoren, sistemak errenta-aitorpenaren emaitzaren kalkulu bat egiten du 2016an indarrean izan den araudiari jarraiki; beraz, 2015ean jadanik onartutako erreforma fiskala sartuta du.

Proba honekin aitorpenaren emaitza aurrera daiteke, baina ez da, inolaz ere, loteslea zergadunarentzat eta Ogasunarentzat, simulagailuak ez baititu sartutako datuak gordetzen. Tresna hau erabiliz zergaduna orientatu egin nahi da, eta ez du inolaz ere aitorpen formal bat aurkeztetik salbuesten 2017ko bigarren hiruhileko kanpaina zabaltzen denean.